

Irakurri hurrengo poema/olerkia eta erantzun hurrengo galderei:

Udazkena etorri da, eta bota ditu
lurrera hosto lehorrak!
Zuhaitzak triste daude,
izarrik gabeko gauak jota.

Balkoira irten naiz:
-Ilargia goibel dabil zeruko hodelen
artean
izarren laztanik gabe,
horixka, motel,
lainoen magalean-.

Eta zuhaitzak ferekatu ditut
samurtasunezko begiradaz,
hostorik izan dezaten
hurrengo udaberrian,
hosto berdez jantziak.

Zer ari ote dira amesten
zuhaitz biluziak?
Isil-isilik, belarrira esan diet:
"Ez negarrik egin, etorriko da
udaberria,
jantziko dituzue soineko berriak".

Juan Ramón Jiménez
Verde Verderol
Edelvives (Patxi Ezkiagak egokitua)



1 Osatu esaldia, hitz zuzenak erabilita.

Aurreko poemak _____ (hegoak/hostoak) goltzen dituzten
_____ (zuhaitzei/animaliei) zer gertatzen zaien esaten digu,
eta _____ (txoria/poeta) nola sentitzen den.

2 Bilatu hiztegia ferekatu hitzaren esanahia, eta aukeratu zein den
esanahi berekoa.

☐ Bideratu. ☐ Laztandu. ☐ Iraindu. ☐ Tristetu.

3 Ilargia goibel dagoela dio poetak. Horrek esan nahi du _____ dabilela.

☐ pozik ☐ urduri ☐ triste ☐ zorabuta

4 Udazkenak, zer bota ditu lurrera? _____

- A) Euri tantak
- B) Hosto lehorrak
- C) Fruituak

5 Hiru hitz hauetatik, zeinek esan nahi du "hosto lehorrak"?

☐ Iratzea.

☐ Orbela.

☐ Goroldia.

6 Eguneko zer unetan ikusten ditu poetak zuhaitzak?

7 Nondik ikusten ditu?

8 Zer adierazi nahi du ilargia "motel" dabilela esatean?

☐ Ziztu bizian dabilela zeruan.

☐ Ozta-ozta mugitzen dela, indarrik ez balu bezala.

☐ Ez dagoela zeruan.

9 Erreparatu bost bertso lerro hauetako azken hitzei. Gero, lotu erriman dauden biak.

Balkoira irten naiz:

-Ilargia goibel dabil zeruko hodeien artean
izarren laztanik gabe,
horixka, motel,
lainoen magalean-.



10 Zertarako idatzi zuen poetak poema hau?

☐ Zuhaitzei neguan zer gertatzen zaien esateko.

☐ Hostorik gabeko zuhaitzengatik zer sentitzen duen adierazteko.

☐ Hosto lehorrak erratzarekin bildu behar direla azpimarratzeko.